

Aurrera Begira

2016

GAZTEEN
AURREIKUSPENEI
BURUZKO
ADIERAZLEAK



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
POLÍTICAS SOCIALES



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud



ZER DA *AURRERA BEGIRA*?

Aurrera Begira Gazteen Euskal Behatokiak urtero burutzen duen ikerketa da, honako helburu hau izanik: Euskadiko gazteek nola antzematen duten oraina eta, epe laburrean, zeintzuk diren beraien etorkizunerako aurreikuspenak jakitea.

Ikerketa honek 2016an bere laugarren emanaldia aurkezten du. Honen bidez gazteen egoera ebaluatzeko eta jarraitzeko tresna erraza eta sintetikoa eskaini nahi zaie bai herritarrei bai gazteriaren arloan erantzukizun politiko edota teknikoak dituzten guztiei.



ZEHAZTASUN TEKNIKOAK

IKERKETAREN DISEINUA ETA EMAITZEN ANALISIA

Gazteen Euskal Behatokia.

METODOLOGIA


Kuantitatiboa, inkesta telefonikoen bidez egindakoa.

INKESTA KOPURUA

1512 inkesta 15 eta 29 urte bitarteko gazteei.

INKESTAK EGITEKO EPEA


2016ko azaroaren 16tik 29era.





GAZTEEN AURREIKUSPENEI BURUZKO 10 ADIERAZLE

- 1 Egungo egoeraren balorazio indizea
- 2 Norberaren poztasun indizea
- 3 Bizitzaren alderdien balantzea
- 4 Lana galtzeko edo baldintzak okertzeko arriskua
- 5 Lana aurkitzea aurreikustea
- 6 Prestakuntzari lotutako lana izatea aurreikustea
- 7 Derrigorrez emigratu beharra aurreikustea
- 8 Emantzipazioa zapuztuko dela aurreikustea
- 9 Gazteen gaitasunekiko konfiantza indizea
- 10 Etorkizunarekiko konfiantza indizea




1

EGUNGO EGOERAREN BALORAZIO INDIZEA

DEFINIZIOA:

Norberaren egoera pertsonalari, gazteen egoera orokorrari eta Euskadiren egoerari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.




Egungo egoeraren balorazioak hobera egin du eta 100etik 67 puntu lortu ditu.

2

NORBERAREN POZTASUN INDIZEA

DEFINIZIOA:

Norberaren lan, prestakuntza, etxebizitza, familia, astialdi, lagun, harreman sentimental edota sexual, osasun, diru-eskuragarritasun eta independentzia pertsonalarekiko poztasunari emandako balorazioen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.




Egoera pertsonalarekiko gogobetetasuna altua da eta balorazio altu horretan eragin handiena ondoko bizialderdiek dute: familia, osasuna eta lagunak.

DEFINIZIOA:

Bizitzaren hamar alderdirekiko gogobetetasuna eta horietako bakoitzari emandako garrantziaren arteko aldea, bi kasuetan 0tik 100era doan eskala erabilia, gazteen zein bizi-alderdik behar duten arreta handiagoa ezagutzeko asmoz.

Aintzat hartu diren hamar alderdiak honako hauek dira: lana, ikasketak eta formakuntza, etxebizitza, familia, astialdia, lagunak harreman sentimentalak edota sexualak, osasuna, diru-eskiragarritasuna eta norberaren independentzia.

Enplegua eta prestakuntza dira arreta handiena behar duten arloak, batezbestekoak baino puntuazio altuagoak dituztelako garrantzia neurtzen duen ardatzean baina batezbestekoak baino txikiagoak gogobetetasuna neurtzen duen ardatzean. Norberaren independentzia da hobetu behar den hirugarren arloa.




4

LANA GALTZEKO EDO BALDINTZAK OKERTZEKO ARRISKUA

DEFINIZIOA:


Urtebetean enplegua galtzea edo beren lan-egoera okertzea oso edo aski litekeena delako ustea duten langile gazteen ehunekoa.



Lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskuak hamar puntuko jaitiera izan du 2015etik 2016ra eta hamabost puntukoa seriea hasi zenetik hona.

DEFINIZIOA:

Urtebeteko epean enplegua aurkitzea espero duten langabeen ehunekoa.




Langabezian daudenen artean, 2017 urtean enplegua lortzeko itzaropena handia da. 2015etik bi puntu jaitsi bada ere, oraindik 2013an izandakoa baino hamabost puntu altuagoa da.

6

PRESTAKUNTZARI LOTUTAKO LANA IZATEA AURREIKUSTEA

DEFINIZIOA:


Ikasketak bukatutakoan, prestakuntzari lotutako enplegua aurkitzea espero duten ikasleen ehuneko.



Ikasleen artean gora egin du beren formakuntzari lotutako lana lortzeko itzaropenak. Ikasketak bukatzean lortuko dutela uste dute ikasleen % 68k, 2013an izandako portzentajea baino 22 puntu altuagoa.

DEFINIZIOA:


Etorkizunean, joan nahi ez badute ere, atzerrira lan egitera emigratu beharko dutela uste duten gazteen ehunekoa.



Lana izan ahal izateko atzerrira derrigorrez emigratu beharraren aurreikuspenak behera egin du.

DEFINIZIOA:


Urtebeteko epean emantzipazio-proiektuak burutu ezin izango dituztela uste duten gazteen ehunekoa, gurasoen etxetik ezin izango direlako irten edo bertara itzuli beharko dutelako.



Gurasoen etxetik emantzipatu nahi izan arren horretarako aukera gutxi edo batere ez daukatela edota beren kontura bizi arren gurasoen etxera nahi izan gabe itzuli behar izango dutela uste duten gazteen ehunekoa zertxobait jaitsi da. Bigarren talde horrek pisu txikia du adierazlean (% 1 baino gutxiago).

DEFINIZIOA:


Zailtasunei aurre egiteko beharrezkotzat jotzen diren gaitasun batzuk aintzat hartuta (langilea, arduratsua, kualifikatua, parte-hartzailea, ekintzailea, idealista eta autonomoa izatea), Euskadiko gazteek gaitasunok zein mailatan dituzten iritziaren batez besteko puntuazioa 0tik 100era doan eskalan.



Gazteen gaitasunekiko konfiantza bi puntuko jaitsiera izan du 2015etik 2016ra baina, hala ere, handia izaten jarraitzen du eta seriearen hasierako puntuazioa baino altuagoa.

DEFINIZIOA:

Norberaren egoerak, gazteenak eta Euskadirenak hurrengo 5 urteetan izango duten bilakaerari buruzko usteen batez besteko puntuazioa, 0tik 100era doan eskalan.



Hurrengo bost urteetan egoerak hobera egingo duenaren konfiantzak handia izaten jarraitzen du, nahiz eta adierazle hau apur bat jaitsi den.



ONDORIOAK



GAZTEEK BALORAZIO ONA EMATEN DIOTE ORAINGO MOMENTUARI ETA KONFIANTZA DUTE ETORKIZUNEAN

Oraingo momentuaren balorazioak hobera egin du eta etorkizunarekiko konfiantza indizeak maila altuan jarraitzen du.

HOBERA EGIN DUTE LANAREKIN LOTUTAKO ADIERAZLEEK

Behera egiten du lana galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskuak lan egiten dutenen artean, eta beren ikasketekin lotutako lana lortzeko itxaropenak gora egin du ikasleen artean. Lana lortzeko itxaropenean ez da funtsezko gorakadarik gertatu langabezia daudenen artean, baina derrigorrez emigratu beharko dutelako ustea zertxobait ahuldu da gazte guztien artean.

EMANTZIPAZIOA ORAINDIK KONPONDU GABEKO GAIA DA

Emantzipazio zapuztuaren aurreikuspenak behera egin duen arren, datuek adierazten dute oraindik ere zaila dela emantzipatzea 30 urte izan baino lehen.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y
POLÍTICAS SOCIALES



Gazteen
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Juventud